DONOSTIA KULTURA

CASARES - TOMASENE

KULTUR ETXEA

Donostiako Udala

Ayuntamiento de San Sebastián

# Casares-Tomasene

Kultur Etxea





500 ale / ejemplares 1,47€ bana / unidad

# Casares-Tomasene

Centro Cultural

Donostiako Udala

Ayuntamiento de San Sebastián

DONOSTIA KULTURA

CASARES - TOMASENE

KULTUR ETXEA

## KULTUR EKIPAMENDUAK ALTZAN

Tomasene ireki eta gero, Altzako auzoak beste gune bat du kultur eginkizunetarako, lehendik zituen Larratxokoaz eta, denetan lehena -1986tik baitago zabalik-, Casares Kultur Etxeaz gainera.

Ekipamendu hauen zerbitzu eta jarduera aipagarrienen artean, honako hauek nabarmen daitezke:

**Casares Kultur Etxea** da erreferentzi puntu behinena auzoko kultur jardueran. Hasi zenetik, 1986an, kultur sorkuntza eta zabalkunderako programa zabala garatzen du, eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie herritarrei. Bertan egiten diren jardueren artean Zinea eta Antzerkia Kalean, Poltsiko Antzerkia, Emakumearen Astea, Abesbatzen Astea, ikastaroak eta tailerrak dira nabarmenenak. Eskaintza nagusia, hala ere, Casares Irratiaren Tailerra da (107.4 FM), etengabe emititzen duena. Altzako Tokiko Bildumak agirien bilketa lan baliotsua egiten du Altzako historiari buruz.

KZ Guneak, teknologia berrien zerbitzuak, teknologia horietarako sarbidea errazten du formazioaren eta nabigazio librearen bidez. Zentruak bereganatu duen azken zerbitzua Plus 55 da, adin horretatik gorakoentzat, eta oso harrera ona duen jarduera programa garatzen du.

Larratxoko **liburutegia**, oraintsu eraberritua, haurrek izan dute orain artean erabiltzeko aukera, eta hemendik aurrera helduek ere erabili ahal izango dute. Kultur Etxeak, berriz, erabilera askotarako areto zabala du, eta bertan kontzertuak, antzezpenak, erakusketak, ikastaroak, antzerki entseiuak, dantzak, danborradak eta abar egiten dira.

**Tomasene** etxea, XVI. mendeko baserriaren hondarren gainean eraiki da eta ahalik eta gehien errespetatu ditu bai egitura bai jatorrizko eraketa, ondasun historikotzat katalogatuta baitago.

Casaresen parean dago, 700 $m^2$ko azalera du hiru solairuen artean, eta gaur egun Altzan eskaintzen diren kultur zerbitzu eta programen eskaintza osatzera eta hobetzera dator. Horretarako, ekitaldi areto berri bat eta liburutegia eransten dizkie lehengoei.

Ekipamendu berri hau Altzako kultur bizitza osatzera datorrelarik, kultur zerbitzu eta programen eskaintza handiagoa eginez eta bizitasun handiagoz erantzun nahi diegu Altzako herritarrek dituzten kultur eskaerei.

## BEHE SOLAIRUA (232,50 $m^2$)

Atarte ondoan **ARETO NAGUSIA** dago, ehun lagunetik gora hartzeko lekuarekin. Ikus-entzunezko materialarekin hornituta dago, eta gizarte eta kultur programazioa garatzeko bidea emango du. Besteak beste, mintegiak, hitzaldi eta solasaldiak, mahai inguruak, ikus-entzunezko proiekzioak, erakusketak...




## LEHEN SOLAIRUA (211,54 $m^2$)

**HELDUENTZAKO LIBURUTEGI**tarako erabiliko da, eta honako zerbitzu hauek izango ditu:

- **Liburutegia:** informazio bibliografikoa, liburuen eta bestelako agirien irakurketa eta mailegua.
- **Fonoteka:** entzunezko dokumentuen mailegua eta bi audizio leku.
- **Infoteka:** lau terminal, interneterako sarbidearekin eta ofimatikarekin.
- **Bideoteka:** DVDen mailegua.
- **Hemeroteka:** egunkari eta aldizkarien irakurketa.



## **BIGARREN SOLAIRUA** (216,63 m²)

**HAUR LIBURUTEGIA** hamalau urtetik beherako erabiltzaileentzat da, eta gune bereizi bat du, **haurtxoteka**, helduren batek lagundutako sei urtetik beherako haurrentzat. Ohiko zerbitzuak eskainiko ditu:

- **Liburutegia:** kontsulta, irakurketa eta liburu mailegutza.
- **Infoteka:** lau terminal informatiko nabigaziorako, cd-rom eta ofimatikarako.
- **Bideoteka:** mailegu zerbitzua eta bideoak eta dvd-ak ikusteko toki bat.
- **Haurtxoteka:** ondo bereizita, helduren batek lagundutako sei urtez azpiko haurrentzako irakurketa gunea sortuko da.

Irakurketa formaleko alde bat ezarri da, eta beste bat informalago eta ludikoagoa. Liburutegiarekin zerikusia duen programazioaren helburuak dira irakurketa bultzatzea eta ezagupenez jabetzeko hainbat jarduera egitea, hala nola ipuin kontaketa, erakusketak, irakurtzera bultzatzeko solasaldiak eta abar.




## **SEGUNDA PLANTA** (216,63 m²)

La **BIBLIOTECA INFANTIL**, destinada a los usuarios menores de catorce años, con un espacio diferenciado, la **bebeteca,** para los menores de seis acompañados de algún adulto, ofrecerá los servicios habituales:

- **Biblioteca:** consulta, lectura y préstamo de libros.
- **Infoteca:** cuatro terminales informáticas para navegación, cd-rom y ofimática.
- **Videoteca:** servicio de préstamo y un puesto de visionado de vídeo y dvd.
- **Bebeteca:** convenientemente separado se creará un espacio de lectura para niños hasta seis años acompañados de un adulto.

Se ha dispuesto una zona de lectura formal junto con otra más informal y de carácter más lúdico. La programación relacionada con la biblioteca tendrá como objetivo impulsar la lectura y el acceso a los conocimientos mediante actividades como contacuentos, exposiciones, charlas de animación a la lectura, etc.



## EQUIPAMIENTOS CULTURALES EN ALTZA

Con la apertura de Tomasene el barrio de Altza cuenta ya con un nuevo espacio destinado a usos culturales que se suma a los ya existentes de Larratxo y, al primero de todos, el Centro Cultural Casares, en funcionamiento desde 1986.

Entre los servicios y actividades más sobresalientes de estos equipamientos podemos destacar los siguientes:

El **Centro Cultural Casares** es el punto de referencia indiscutible para la actividad cultural del barrio. Desde sus inicios, en 1986, desarrolla un ambicioso programa de creación y difusión cultural a la vez que ofrece una serie de servicios para la ciudadanía. Entre las actividades que desarrolla destaca la programación de Cine y Teatro en la calle, el Teatro de Bolsillo, la semana de la Mujer y la de Masas Corales, sus cursos y talleres, etc. La oferta estrella continúa siendo el Taller de Radio Casares Irratia (107.4 FM) que emite ininterrumpidamente por las ondas. La Colección Local de Altza realiza una valiosa labor de recopilación documental sobre la historia de Altza.

El servicio de nuevas tecnologías KZ Gunea facilita el acceso a las mismas a través de la formación y de la libre navegación. El último servicio incorporado al Centro ha sido el de Plus 55, destinado a los mayores, que desarrolla un programa de actividades de gran aceptación.

En Larratxo **la biblioteca,** recientemente reformada, incorpora al espacio inicial destinado al usuario infantil la posibilidad de ser utilizado también por la población adulta. El **Centro Cultural**, a su vez, dispone de una amplia sala polivalente donde se realizan conciertos, actuaciones teatrales, exposiciones, cursos, ensayos de teatro, danza, tamborada, etc.

La edificación de **Tomasene**, construido sobre los restos del caserío del siglo XVI, ha respetado al máximo tanto la estructura como la configuración original de este elemento catalogado como patrimonio histórico.

Situado frente a Casares y con una superficie de 700 m² distribuidos en tres plantas, complementa y mejora la oferta de servicios y programas culturales que en la actualidad se ofrecen en Altza, para lo cual incorpora una nueva sala de actos y una biblioteca.

Con la incorporación de este nuevo equipamiento a la vida cultural de Altza queremos responder con una mayor oferta de servicios y programas culturales y un mayor dinamismo a la también creciente demanda cultural de los vecinos de Altza.

## PLANTA BAJA (232,50 m²)

Junto al vestíbulo se ubica la **SALA DE ACTOS** con capacidad para acoger a más de cien personas. Equipada con diverso material audiovisual, permitirá desarrollar una programación de carácter social y cultural que incluirá seminarios, charlas y conferencias, mesas redondas, proyecciones audiovisuales, exposiciones...




## PRIMERA PLANTA (211,54 m²)

Destinada a **BIBLIOTECA de ADULTOS,** en la misma se ofrecerán los siguientes servicios:

- **Biblioteca:** información bibliográfica, lectura y préstamo de libros y otros documentos.
- **Fonoteca:** préstamo de documentos sonoros y dos puntos de audición.
- **Infoteca:** cuatro terminales con acceso a internet y ofimática.
- **Videoteca:** préstamo de DVDs.
- **Hemeroteca:** lectura de diarios y revistas.

